



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko urtarrilaren 7a

2. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, ikastetxeetan ohiz kanpoko egoerak gertatzean espediente publikoak egiteari buruzkoa. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuarekiko negoziazioei ekin diezaien, aerodromo eta aireportu zibilen arloko eskumenak eskualdatzeko. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kixotearen IV. mendeurrena ospatzeko ekitaldiak susta ditzan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zentro soziosanitario itunduetan zuzendaritzako ardurak dituzten pertsonen titulazioak azter ditzan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Israel eta Palestinaren arteko gatazka bide-ratzeko bigarren bake konferentzia egin dadin. Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Adierazpen politikoa, Europako Konstituzioaren itunaren proiektuari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

G S A I L A:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Deialdia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa (8. or.).

H S A I L A:

Bestelako testu arau-emaileak:

- “Otano kasua” izeneko aztertze ikerketa batzordearen eraketa, antolaketa eta jarduerari buruzko arauak (13. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, ikastetxeetan ohiz kanpoko egoerak gertatzean espediente publikoak egiteari buruzkoa.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Aralar parlamentu-taldeak ikastetxeetan ohiz kanpoko egoerak gertatzean espediente publikoak egiteari buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

JABELDURAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak jabeldura hau, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilari Campoy jaunari zuzendua, aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikulua ezarritakoari jarraikiz tramitatzeko onar dezala eskatzen dio:

Aralar parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariari eginiko jabeldura, ikastetxeetan gertatzen diren ohiz kanpoko egoeretan espediente publikoak egiteari buruzkoa.

Gure taldeak galdera egin zuen agustindarren ikastetxearen inguruko txosten teknikoei buruz; alegia, ikastetxe hori aurrerago egoeran zegoela egiaztatzen eta ikastetxe hori nahitaez itxi eta bertako 600 ikasleak eta irakasleen plantilla beste ikastetxe batzuetan banatu beharra eragin zuten txostenei buruz. Campoy jauna buru duen hezkuntza Departamentuak horren inguruan berriki igorri digun informazioak erakusten du departamentu horrek ez zuela inolako txosten publikorik egin aurrerago.

era egiaztatzen zuten txosten pribatuak berretsi edo zalantzan jartzeko; departamentu horretan ohiko prozedura ote den jakin nahi genuke.

Departamentuak guri txosten pribatuak ez besterik bidali ondoren, talde honek prentsaren bidez jakin ahal izan du badela txosten publiko bat, behintzat, ikastetxe horri buruz, eta ez zigutela helarazi, gure taldeak hala egiteko eskatu bazuen ere.

Hori dela eta, kontseilariari eskatzen diogu argitu dezan txosten hori baden ala ez eta, baldin bada, zergatik ez zigan helarazi. Era berean, ikastetxearen jabeek enkargaturiko txosten pribatuetan jarrera tekniko kontrajarriak daude, haietako batek egiaztatzen baitu ikastetxea aurrerago egoeran dagoela eta besteak, ordea, akatsak zuzentzeko eta eraikina ikastetxetarako erabiltzen jarraitu ahal izateko soluzio bideragarriak proposatzen baititu; departamentuak ez digu eman egoera horren aurrean ezer egin izanaren berri.

Departamentu horren jardunari buruzko informazio kontrajarri horiek eta, halaber, agustindarren ikastetxeak hartzen zuten lursaila sustatzaile pribatu bati saldu izanari buruzko informazioak ere zalantza eragin dute parlamentu-talde honetan, ez baitakigu zinez ikastetxea ez ote zen itxi alde aurreko asmo baten ondorioz, baita Nafarroako Gobernua lehenagotik jakinaren gainean zegoela ere.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzen diot jabeldura hau aurkeztutzat jo eta behar bezala tramita dezala.

Iruñean, 2004ko abenduaren 21ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da Espainiako Gobernuarekiko negoziazioei ekin diezaien, aerodromo eta aireportu zibilen arloko eskumenak eskualdatzeko.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da Espainiako Gobernuarekiko negoziazioei ekin diezaien, aerodromo eta aireportu zibilen arloko eskumenak eskualdatzeko."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Foru Araubide Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2004ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Foru Araubideko Batzordeak onets dezan, hala baderitzo:

Zioen azalpena

Egun hauetan, aireportu-kudeaketa egokiaz zalantzak izan dira, Noingo aireportuan hegaldi asko bertan behera gelditu direlako ohiko lainoa dela eta. Gertaera hori ez da anekdota hutsa, eta larriki kaltetzen du Nafarroako aireko garraioarekiko konfiantza. Eta hori administrazio zentralak azpiegiturak hobetzeko interesik ez izateari edo kudeaketa behar bezala ez egiteari leporatu ahal zaio. Bestalde, gure taldearen iritzia da Nafarroa huts egiten ari dela aireko garraioari dagokionez

(bai salgaiena bai bidaiariena). Zehazki, Iruñean ia monopolioan aritzen diren konpainien tarifak eskandaluzkoak dira. Salgaien aireko garraioaren balantzeak eskaintzen dituen datuak ez dira batear onak.

Inork ez du zalantzan jartzen aireportu trafikoa garrantzi handikoa dela Nafarroako garapen industrialerako. Bidaiarien eta salgaien garraioaren arloan, intermodalitatea pisu handieneko aldagaietako bat da inbertsioak erakartzeko. Era berean, komunikazio mota oro bultzatzea ezinbestekoa da etorkizunari begira dagoen gizarte ireki batean. Testuinguru horretan, premia bihurtzen da Nafarroako Foru Komunitateak eskumenak bereganatzea arlo horretan, erdietsi beharreko helburuak koordinatu, finkatu eta lehentasunaren arabera ordenatzeko bertako politika bat prestatzeko, betiere gainerako administrazio publikoekin koordinaturik eta ekimen pribatuarekin elkarlanean. Eskumen honen eginkizunak izanen lirake, besteak beste, aireportu publikoak eta aireko zirkulazioaren instalazioak eta sistemen sareak antolatu, zuzendu, koordinatu eta ustiatu eta haien kontserbazioaz eta administrazioaz arduratzea; halaber, azpiegituren plangintza egitea eta berariazko irakaskuntzetan parte hartzea.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Gorte hauek Nafarroako Gobernuaren premiatzen dute Espainiako Gobernuarekiko negoziazioari ekin diezaioten, Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzeko gure lurraldean dauden aerodromo eta aireportu zibilen arloko eskumena eta Nafarroako aire espazioari dagokion aireko trafikoa eta garraioaren arlokoa.

Iruñean, 2004ko abenduaren 17an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Kixotearen IV. mendeurrena ospatzeko ekitaldiak susta ditzan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Kixotearen IV. mendeurrena ospatzeko ekitaldiak susta ditzan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratadain agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Kultura eta Turismo Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2004ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, dagokion batzordeak onetsi dezan, hala baderitzo:

Zioen azalpena

1605. urtean, “El ingenioso hidalgo Don Quijote de la Mancha” liburua, Espainiako literatura lan unibertsalena, argitaratu zen aurrenekoz. Don Kixote ondare unibertsala da. Literaturaren kultur mito bat da, ametsez eta errealitateaz osaturiko konstelazioa bere baitan hartzen duena. Nobela hori Espainiako literaturaren ospearen sinbolo

betea da. Nafarroak berezko bi hizkuntza ditu, gizakiek bere-berea duten alderdi batean, komunikazioan alegia, kultur ondare aberatsa osatzen dutenak. Ildo horretan, gaztelaniak fama bereganatu zuen aipatutako literatura lanari esker. Gure parlamentu-taldek ez dio inola ere uko egin nahi gure kultur aberastasunari eta beraz, ez diogu uko egin nahi ez gaztelaniari ez euskarari. Kultur mestizaiari positibo eta integratzaile deritzogu, kasu honetan Espainiako literatura sustatzeko nahiarekin.

Espainiako Gobernuak eta beste autonomia erkidego batzuetako gobernuak IV. Mendeurrena ospatzeko ekitaldiak gauzatzen ari dira. Gure taldearen iritziz, komeni da Nafarroako Gobernuak ere Kixotearen IV. Mendeurrena ospatzeko ekitaldiak gauzatzea, lan hori irakurtzea eta, oro har, irakurketa bultzatzeko xedearekin, kontuan harturik munduan izan duen zabalkundea eta Espainiako literaturari egin dion ekarpena. Gure idiosinkrasia mestizoaren parte den kultur osagai batez hornituriko ekitaldiak.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

– Gorte hauek Nafarroako Gobernuak premiatzen dute Kixotearen IV. Mendeurrena ospatzeko ekitaldiak susta ditzan, lan horren zabalkundearen alde egiteko.

– Ekitaldi horiek Nafarroako Gobernuak berak eginak izan ahalko dira, edo Espainiako Gobernuarekin nahiz beste erkidego batzuetakoekin batera gauzatuak.

Iruñean, 2004ko abenduaren 17an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zentro soziosanitario itunduetan zuzendaritzako ardurak dituzten pertsonen titulazioak azter ditzan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zentro soziosanitario itunduetan zuzendaritzako ardurak dituzten pertsonen titulazioak azter ditzan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2004ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 193. artikuluan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Ezker Batuak galdera bat egin zuen zentro soziosanitario itunduetan zuzendaritzako ardurak dituzten pertsonen titulazioei buruzko informazioa jasotzeko, eta horren haritik Gizarte Ongizatearen Departamentuak emandako erantzuna kezka garrira iruditu zaigu.

Lodosako zahar-etxean zuzendaritzako ardurak betetzen duen pertsonaren titulazioa hauxe da: Lan harremanetako diplomatua eta laneko arriskuaren prebentzioaren arloko masterra; egiaztatzeko dago antzeko lanpostuan daukan esperientzia.

Corellako zahar-etxean, berriz, Mensajeros de la Paz elkartearekin zegoen kudeaketa kontratua desegin ondoren, zain gaude zentroko zuzendari berriaren titulazioaren eta esperientziaren berri noiz emanen den, araudia betetzen ote den jakiteko. Gure ustez ez da bidezkoa interesatuak jakinarazi nahi duenaren menpe egotea, eta administrazioak uko egitea berak egin beharreko jarraipena egiteari.

Egoera hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bi hilabeteko epean Gizarte Ongizate Departamentuak zentro soziosanitario itunduetan zuzendaritzako ardurak dituzten pertsonen titulazio guztiak azter ditzan eta, epe horretan, araudiak eskatutakoari lot dakizkion.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan eskaintzaren deialdian eska dadin kasuan kasuko zentro soziosanitarioko zuzendaritzan eta gainerako arduradun karguetan aritzeko behar den titulazioa, izangaien aukera berdintasuna bermatze aldera.

Iruñean, 2004ko abenduaren 22an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Israel eta Palestinaren arteko gatazka bideratzeko bigarren bake konferentzia egin dadin.

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Israel eta Palestinaren arteko gatazka bideratzeko bigarren bake konferentzia egin dadin".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2004ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

ZIOEN AZALPENA

Yasser Arafat presidente palestinarra hil ondoren, Jerusalemehorzteko trabak jarri izana, Hagako auzitegiaren ebazpenari kontra eginez Harresia eraikitzen segitzea, Israelgo armadak Gazako lurralde okupatuetan behin eta berriz erabiltzen duen bortizkeria, Jeningo errefuxiatuen gunearen suntsipena eta azken egunetan Rafah hirian ehunka etxebizitza suntsitu, zibil errugabe asko eta asko erail eta giza laguntzako erakunde-ei zaurituei laguntzera joateko hiri horretarako bidea itxi izana, horiek guztiak Ariel Sharonen gobernuak emandako pausuak dira, erantsi behar zaizkionak Palestinako herriaren kontrako ekintza kriminalen zerrenda luzeari eta Nazio Batuen ebazpenak ez betetzeko jokabide sistematikoari. Nazio Batuen ebazpen horien xedea da, hain zuzen, bake irtenbidea bilatzea dagoeneko berrogeita hamalau urte bete dituen eta azken bi urteetan soilik 1.897 palestinar hildako eta 41.000 zauritu eragin dituen gatazka horretarako.

"Errepide mapa" delakoak, 2003an Europako Batasunak, Amerikako Estatu Batuek, Errusiako Federazioak eta NBEk sustatuak, konfiantza giroa sortzeko asmoa zuen, halatan bake prozesuari jarraipena eman eta, kasua bada, Palestinaren independentzia lortzeko, aurrebaldintza hauekin:

Egungo indarkeriazko egoera, harresiaren jarraipena, etxebizitza suntsipena, populazio zibilaren kontrako eraso indiskriminatuak, herri palestinarri ezartzen zaion oinaze eta isolamenduzko egoera, ezaugarri horiek guztiek agerian uzten dute beharrezkoa dela nazioarteko erkidego osoaren konpromiso irmoa bake itxaropenari heltzeko berriro ere. Beharrezkoa da halaber laguntza plan bat, Espainiako Gobernuaren plan integralarekin koordinatua, erakunde guztiek, herritarren sostengu eta lankidetzarekin, herri palestinarren egoera hobetzearen alde egin dezaten.

Horregatik guztiagatik, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak, palestinarren eta israeldarren arteko gatazkari irtenbidea ematen laguntze aldera, erabaki du:

1. Bigarren bake konferentzia egin dadin eskatzea, israeldarren eta palestinarren arteko gatazka behin betikoz amaitu, Israelen eta mundu arabiarren arteko harremanak normalizatu eta erabaki gabe dauden gaiak (errefuxiatuen itzulera, kokalekuen politika bertan behera uztea, muga egonkorak Palestinako Estatuarentzat, Jerusalem Palestinako hiriburu izatea...) behin betiko bideratzea ekartzeko.

2. Palestinako estatu bat, muga egonkor eta seguruak izanaren dituen, sortzearen alde dagoela adieraztea berriro ere.

3. Estatuko Gobernuak premiatzea honakoetara:

I) Europako Batasuneko erakundeen esparruan haxe bultzatzea:

a) Behar diren arau-neurriak, Europako Batasunak 1998ko ekainaren 8an armen esportazioaren arloan onetsi zuen jokabiderako kodea estatu kide guztientzat loteslea izan dadin eta armen

ekoizpenaren eta esportazioaren gaineko kontrol tresnak ugaritu daitezzen.

b) Israelekiko lehentasunezko merkataritza-akordioa eteteko aukera aztertzea. Etenaldiak irauen luke aipatutako akordioan herrialde horrek giza eskubideen errespetuaren inguruan bere gain hartutako betebeharrak, bai eta nazioarteko zuzenbideak ezartzen dizkionak ere, bete arte.

II) Israelgo Gobernuari eska diezaion lehenbait lehen bete dezan honakoa:

a) Harresia eraikitzeari utzi, eraikitakoa eraitsi, sortutako kalteengatik kalteordainak eman eta

lege betebeharrak bete ditzan, Hagako Auzitegiak 2004ko uztailaren 19an adierazitako kontsulta-iritzian jasorik dauden bezala.

b) Haren armadak bertan behera utz ditzan palestinarren kontrako erasoak.

4. Nafarroako erakunde guztiak premiatzea herri palestinarrarentzako giza laguntza ematen segitzeko eta laguntza hori areagotzeko, horrela herri horren giza garapena, ekonomikoa eta soziala bultzatu ahal izateko.

Iruñean, 2004ko abenduaren 22an

Eleduna: Begoña Errazti Esnal

Adierazpen politikoa, Europako Konstituzioaren itunaren proiektuari buruzkoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Elendunen Batzarrrak, 2004ko abenduaren 27an eginiko bilkuran, adierazpen politikoa hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Osoko Bilkura berezia eginen du hurrengo bilkuraldian, otsailaren

hasierako egunetan, Europako Konstituzioaren itunaren proiektuari buruz parlamentu-taldeek duten jarrera eztabaidatu eta adierazteko.”

Iruñean, 2004ko abenduaren 28an

Lehenedakaria: Rafael Gurrea Induráin

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia dela-eta emandako txostenak ikusita, eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 9. artikuluekin bat, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2004ko abenduaren 28an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Deialdia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa

Deialdi honen oinarriak hauek dira:

1. oinarria.- Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzea.

1.2. Deialdi honen bidez izendatutako izangaiak Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan teknikarien kidegoko langileentzat (teknikari diplomadunen eskala) ezarritako eginkizunak bete

beharko ditu, eta horien eskubide eta betebeharrak izanen ditu.

Eginkizun hauek izanen ditu:

a) Lansarien sistemaren kudeaketa integrala (klase pasiboen sistema, gizarte segurantza, zergak...).

b) Kontabilitate publikoaren sistemaren kudeaketa integrala (aurrekontuen arloa, kontabilitate orokorraren arloa, diruzaintzako kontrola, inbentarioen kontrola).

c) Kudeaketa eta laguntza teknikoa, administrazio espedienteak garatzen eta haien jarraipena egiten (obra, zerbitzu eta horniduren kontratazioa eta abar), eta Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoan tramitatzen diren kexa espedienteak.

d) Deskribaturiko eginkizunetarako teknologien kudeaketa.

e) Arestian aipaturiko eginkizunek eragindako txostenak eta proposamenak egitea.

f) Haren mailari eta kategoriari dagozkien eginkizunak.

1.3. Lanpostua B mailakoa da eta maila horri dagozkion lansariak izanen ditu, eta horri Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren plantilla organiko indardunean zehazturik dituen osagarriak gehituko zaizkio.

1.4. Kontuan harturik bete beharreko eginkizun berriak, eskatutako titulazioari dagozkion eginkizun orokorrez gain, lehiaketa Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko erregelamenduaren 10. artikuluari jarraikiz eginen da.

2. oinarria.- Izangaien betebeharrak.

2.1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu huts hori lekualdatze lehiaketaren bidez

beteko da. Lehiaketa horretan parte hartu ahal izanen dute jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Comptos Ganberako eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko funtzionarioek, betiere eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean honako baldintza hauek guztiak betetzen badituzte.

a) B mailako funtzionarioa izatea.

b) Diplomadun, ingeniari tekniko edo arkitekto tekniko, edo ofizialki horien baliokidetzat hartzen den tituluaren jabe izatea.

2.2. Aurreko baldintzak deialdi honen 3. oinarri- an ezarritako epean eta eran frogatu beharko dira. Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete behar direla ulertuko da. Halaber, lanpostu hutsak betetzeko prozedura osoan zehar –alegia, izendapenera arte– bete beharko dituzte izangaiek 2. oinarri honen 1. atale- an aipatzen diren baldintzak.

3. oinarria.- Eskaerak.

3.1. Lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera, eskabide gisa, eredu ofizialaren arabera (deialdi honen II. eranskine- an ageri da), aurkeztu beharko dute, eta bertan ondokoak azaldu: izen-abizenak, adina, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, helbidea eta telefo- noa, izanez gero.

3.2. Eskaerari honakoak erantsi beharko zaiz- kio:

a) Deialdi honen 2. oinarrian ezarritako baldin- tza guztiak betetzen dituela frogatzen duten egiaz- tagiriak.

b) Alegatutako merezimenduen zerrenda orde- natua, I. eranskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuak, eta horien egiaztagiriak, behar bezala kautotuak.

3.3. Eskabideak Nafarroako Parlamentuko lehendakariari igorriko zaizkio, eta egun eta ordu baliodunetan aurkeztuko dira Parlamentuko Erre- gistro Orokorrean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hamabost egun naturaleko epean.

Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

4. oinarria.- Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Par- lamentuko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarro- ako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.2. Interesatuak egokitzen jotzen dituzten erre- klamazioak aurkeztu ahal izateko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka, eta akatsik izan bada horiek zuzendu, betiere zerren- da hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara- tu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epean.

4.3. Ezarritako epean eskabiderik aurkeztu ezean, Parlamentuko Mahaia lehiaketa hutsik gelditu dela adierazten duen ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldiz- kari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Parlamentuko lehen- dakariak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.5. Izangai bazterturik ez badago, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda.

5. oinarria.- Epaimahai kalifikatzailearen kide- ak, eraketa eta jarduna.

5.1. Hauexek dira merezimendu lehiaketa epai- tu behar duen epaimahaiko kideak:

Mahaiburua: M.^a Jesús Aranda Lasheras andrea, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa.

Ordezkoa:

1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzor- deak izendatu beharrekoa.

Ordezkoa: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatu beharrekoa.

2. Enrique Mateo Sanz jauna, Nafarroako Arar- tekoaren aholkularia. Epaimahai kalifikatzailearen idazkari lanetan arituko da.

Ordezkoa: Aurelio Romero Serrano jauna, Nafarroako Arartekoaren aholkularia.

5.2. Epaimahai kalifikatzailea izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara eman ondoko bost egunetako epean eratu behar- ko da. Horretarako, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

5.3. Epaimahaiak jardun ahal izateko, kideen gehiengoak bertan egon beharko du. Erabakiak botoen gehiengoaren bidez hartu beharko dira, eta epaimahaiko burua kalitateko botoaz baliatu ahal- ko da.

5.4. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplika- tzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazio- ak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak ebatziko ditu.

5.5. Epaimahai kalifikatzaileak lehiaketaren merezimendu baremoa behar bezala baloratzeko beharrezkoak dituen kanpoko laguntza eta aholkuak izanen ditu.

Epaimahaiak aholkulari espezialistei dei egin ahalko die probarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoan aritzera mugatuko dira, eta horretan soilik emanen diote laguntza epaimahaiari.

6. oinarria.- Merezimenduen kalifikazioa.

6.1. Arlo hauek baloratuko dira:

a) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak: 35 puntu gehienez.

b) Prestakuntza, irakaskuntza, ikerketa eta beste merezimendu batzuk: 25 puntu gehienez.

Alegatu eta frogaturiko merezimenduak deialdi honen I. eranskinean ageri den baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak.

Merezimendu guztiak izangai bakoitzak lekualdatze lehiaketan parte hartzeko bere eskabidea aurkezten duen unean alegatu eta agiri bidez frogatu beharko dira.

Epaimahaiak ezin izanen du baloratu, inola ere, alegatu ez den eta agirien bidez frogatu ez den merezimendurik, ez eta atal bakoitzean zehazturiko gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.

Izangaiak alegatutako merezimenduen gaineko argibideak eta datu osagarriak eskatu ahalko ditu epaimahaiak.

c) Txosten psikoteknikoa: 15 puntu gehienez.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Psikologia Aplikatuaren Zerbitzuak, d) atal aipatzen duen proba praktikoa egin ondoren, lehiakide bakoitzari buruzko txosten psikoteknikoa eginen du, eta bertan baloratuko du bakoitzaren egokitasun pertsonala deialdiaren lanpostuaren izaera eta ezaugarrietarako. Zerbitzu horrek txosten psikoteknikoan izangai bakoitzari emandako puntuazioa loteslea izanen da lehiaketaren epaimahai kalifikatzailearentzat.

d) Proba praktikoa lanpostuaren edukiari eta eginkizunei buruz (bereziki honako arlo hauetan indarra duten xedapen guztietan edo batzuetan ageri diren gaiei buruz: Nafarroako Foru Komunitatearen Arartekoa; Nafarroako ogasun publikoa eta kontabilitate publikoa; administrazio kontratazioa, Nafarroako Parlamentuaren eta Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileak, administrazio publikoen araubide juridikoa eta administrazio prozedura): 25 puntu gehienez.

Lehiaketaren epaimahai kalifikatzaileak egoki ikusiz gero, proba praktikoa ahoz egin eta defendituko dute izangaiak, eta agerraldi horren xede izan daitezke, halaber, aurkeztutako merezimenduen eta lehiaketaren xede den lanpostuaren ezaugarrietarako egokitasunaren inguruko galderak.

Proba baztertzailerak izanen da eta 12,50 puntu beharko dira, gutxienez, gainditzeko.

Proba hau gainditzen duten izangaiak lortutako puntuazioa lehiaketaren gainerako ataletan lortutakoari gehituko zaio, haietako bakoitzaren puntuazio osoa zehazteko.

6.2. Lehiaketa kalifikatu ondoren, epaimahaiak partaideek lorturiko puntuazioak paratuko ditu Nafarroako Parlamentuko iragarki ohelean, eta bost eguneko epea irekiko du interesatuek beren eskubidearen mesedetan kalifikazio horri buruz komeni zaiena alega dezaten.

6.3. Lehiakideen puntuazioetan berdinketa gertatuz gero, administrazio publikoei zerbitzuak ematen aitorturiko antzinatasun handiena dutenen aldeko erabakia hartuko da. Berdinketak jarraituz gero, lanpostuaren edukiari eta eginkizunei buruzko proba praktikoa puntuazio altuena lortu duen lehiakidearen alde eginez ebatziko da.

7. oinarria.- Izangaien zerrenda ordenatua eta lanpostuaren esleipena.

7.1. 6.2 oinarriak aipatzen dituen erreklamazioak behin ebatzirik, epaimahaiak izangaien zerrenda, lortutako puntuazioaren arabera ordenaturik, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igorriko dio, eta horrek hasieran deitutako lanpostu kopurua gehitzearen inguruko erabakia hartuko du. Era berean, Mahaiak zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du.

7.2. Legebiltzarreko Mahaiak lanpostu hutsa esleituko dio puntuazio altuena lortu duen izangaiari, eta izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du.

8. oinarria.- Jabetza hartzea.

8.1. Izendatutako izangaiak izendapenari buruzko erabakia jakinarazten zaionetik hasita hamar egun naturaleko epearen barruan hartu beharko du lanpostu hutsaren jabetza.

8.2. Aipatu epean, aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, jabetza hartzen ez duen lehiakideak lehiaketaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten diela ulertuko da eta, hala izanik, aurreko oinarrian adierazi zerrendan hurrengo den izangaiarekin beteko da lanpostua.

9. oinarria.-

9.1. Aurkezturiko agiriak berreskuratu ahalko dituzte izangaiek, baldin eta alde zurretik horretarako eskaera espresa egiten badute, non eta erreklamazio edo errekurtsorik aurkeztu ez den. Eskabidea hiru hilabeteko epean aurkeztu ahalko da; epe hori kontatzen hasiko da izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik bi hilabete igaro direnean.

9.2. Aurkezturiko agiriak erretiratu gabe aurreko idatz-zatian aipaturiko epea igaro ondoren, izangaiek horiek berreskuratzeari uko egin diola ulertuko da, hark galdu egiten du horretarako eskubidea, eta erretiratu gabeko agiriak suntsitu egiten dira.

9.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkeztu baldin bada, aurkezturiko agiriak itzuli ahalko dira erreklamazio edo errekurtsoren izapidezakeak posible egiten duenean.

10. oinarria.- Errekurtsuak.

Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien, izendatzeko erabakiaren eta Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsuotako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsua, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Parlamentuko lehendakariak edo epaimahai kalifikatzaileak deialdi hau aplikatzeko gauzatzen dituzten gainerako egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsua jarri ahalko da, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta, biharamunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean.

I. ERANSKINA**Merezimenduak baloratzeko baremoa**

a) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak:

1) Edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuak, deialdian eskatutako titulazio eta maila/taldeko lanpostuetan: urte bakoitzeko 1,50 puntu.

2) Edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuak, aurrekoak ez diren lanpostuetan: urte bakoitzeko 0,37 puntu.

Oharrak:

Lehena. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzionalki dagokion puntuazioa emanen zaie izangaiei.

Bigarrena. a) letra honi dagokion puntuazioa gehienez ere 35 puntukoa izanen da.

Hirugarrena. Lanaldi partzalean emandako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

Laugarrena. Deialdia argitaratu ondoren emandako zerbitzuak ez dira baloratuko.

Bosgarrena. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon den aldietako zerbitzuak, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu den aldietakoak, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan eman izan balitu bezala kontatuko dira.

b) Prestakuntza, irakaskuntza, ikerketa eta beste merezimendu batzuk:

1) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolatutako prestakuntza ekintzetan parte hartu izana: 0,10 puntu kreditu akademiko edo haren baliokideko (10 ikastordu), eta, gehienez ere, 10 puntu.

Oharrak:

Lehena. Baloratu beharreko prestakuntza ekitaldien ikastordu zatikiak hainbanatuko dira.

Bigarrena. Ikastorduen kopurua agertzen ez duten ziurtagiriak kreditu batekoak izanen balira bezala baloratuko dira.

Hirugarrena. Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriak 12 kreditukoak balira bezala baloratuko dira.

Laugarrena. Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez badituzte ere, administrazioak agindurik edo oniritzirik eginak diren prestakuntza ekitaldietan parte hartzea puntuazio berarekin puntuatuko da. Horien artean, espresuki, sindikatuek administrazio publikoetako Etengabe-ko Prestakuntzarako Itunen barruan antolatuak sartuko dira.

Bosgarrena. Atal honetan ez dira baloratuko ikasketa titulu bat, unibertsitatekoa nahiz unibertsitatez kanpokoa, lortzeko ikasketak.

2) Kongresu edo jardunaldietan ponentziak edo komunikazioak aurkeztu izana, beka jasotako edo sarituriko zientzia edo ikerketa lanak egitea, aldiz-

kari espezializatueta lanak argitaratzea: 3 puntu, gehienez ere, epaimahai kalifikatzaileak baloratu beharrekoak, lana edo jarduera bakarka edo taldean egin den eta biltzarrak edo argitalpenak herri, eskualde, nazio edo nazioarteko maila duen kontuan hartuz.

3) Sektore publikoan prestakuntza ekintzak antolatu edo/eta horietan irakasle gisa parte hartu izana: gehienez ere, bi puntu. Epaimahai kalifikatzaileak baloratuko du, horien iraupenaren arabera.

4) Deialdian eskatutakoak ez diren ikasketa titulazio eta espezialitate desberdinak: gehienez ere 4 puntu.

5) Doktoretza edo lizentziatura gradua izatea deialdian eskatutako titulazioan. 2 puntu gehienez ere.

6) Epaimahaiak baloratu beharreko bestelako merezimenduak: besteak beste, hizkuntzak, lanak sektore pribatuan, prestakuntzako bekak nahiz egonaldiak, kontsulta organoetan parte hartzea, aholkularitza, partaidetza edo ordezkartza. Gehienez ere 4 puntu.

Oharrak, b) letra osoari buruzkoak:

Lehena. Deialdiko lanpostuarekin zerikusirik duten merezimenduak bakarrik baloratuko dira letra honen barruan.

Bigarrena. b) letra honi dagokion puntuazioa gehienez ere 25 puntukoa izanen da.

II. ERANSKINA

Izena-abizenak: _____

Adina : _____

NAN zenbakia: _____

Helbidea (kalea, zenbakia, solairua, posta kodea eta telefonoa) _____

ADIERAZTEN DUT:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2004ko ren(e)an, hartutako erabakiaren berri izan dut. Horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onetsi zuen horren berri alegia.

Deialdiko 2. oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen ditut eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Horiek horrela,

ESKATZEN DUT:

Eskabide honetan aipatzen den lekualdatze lehiaketan onartua izatea. Deialdian eskatutako agiriak eta alegatzen ditudan merezimenduen egi-aztagiriak gaineratu ditut.

Iruñean, 2004koaren(e)an.

Sinadura:

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

“Otano kasua” izeneko aztertze ikerketa batzordearen eraketa, antolaketa eta jarduerari buruzko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko abenduaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuak 2004ko abenduaren 23an eginiko Osoko Bilkuran erabaki zuen “Otano kasua” delakoa aztertze ikerketa batzorde bat eratzea.

Hori dela eta, Erregelamenduko 61. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoari jarraikiz, bidezkoa da onestea batzorde horren eraketa, antolaketa eta jardunbidea zuzenduko dituzten arauak.

Hori horrela, Eledunen Batzarrak hala erabaki ondoren, ERABAKI DA:

1. “Otano kasua” izeneko aztertze ikerketa batzordearen eraketa, antolaketa eta jarduerari buruzko arauak onestea. Honen ondotik ageri dira arau horiek.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2004ko abenduaren 28an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

“Otano kasua” izeneko aztertze ikerketa batzordearen eraketa, antolaketa eta jarduerari buruzko arauak

Lehenengoa. Ikerketa Batzordea eta haren jarduketak Legebiltzarreko Erregelamenduko 61. artikuluan eta harekin lotutakoetan ezarritakoari egokituko zaizkio.

Bigarrena. Batzordearen helburua izanen da “Otano kasua” izeneko ikertzea, hau da, Nafarroako Gobernuak “Bosh Siemens, S.A.” enpresari “Safe!” faktoria saldu zionean diru kopuru zehatz bat bereganatu izana eta Foru Ogasunak diru hori berreskuratzeko aukerarik ote duen aztertzea.

Hirugarrena. Ikerketa Batzordean parlamentu-talde bakoitzeko bi kidek hartuko dute parte, eta erabaki guztiak boto ponderatuaren bitartez hartuko dituzte, batzordeko buruaren hautaketa barne. Eledun bakoitzak bere taldea osatzen duten foru parlamentariak bezainbat boto edukiko ditu batzordean.

Laugarrena. Ikerketa Batzordea 2005eko otsailaren 21ean eratuko da, 12:00etan.

Bosgarrena. Batzordea eratzeko bilkuran batzordeburua hautatuko da; hura ez dagoenean, parlamentu-talde bereko batzordekide den beste foru parlamentaria arituko da haren orde. Batzordeari laguntzen dion legelaria izanen da batzordeko idazkari.

Seigarrena. Parlamentu-taldeen 2005eko otsailaren 8ko 12:00ak baino lehen jakinarazi beharko diote Legebiltzarreko lehendakariari zein diren batzordeko kide izateko aukeratu dituztenak.

Zazpigarrena. Ikerketa batzordeak 2005eko apirilaren 22a baino lehen amaitu beharko ditu bere lanak, eta egun horretan onetsiko ditu ondorioak. Legebiltzarreko Mahaiak, Eledunen Batzarrak hala erabaki ondoren, epe hori luzatu ahalko du batzordeak eskatzen badu.

Zortzigarrena. 1. Batzordera agertzeko eskariak zitazio fede-emaile bidez egingen ditu Parlamentuko lehendakariak, hiru egun lehenago, gutxienez. Zitazio horretan hauxe jaso beharko da:

a) Batzordeak pertsona hura agertzea eskatzeko erabakia hartu zuen eguna.

b) Agerraldira deitutakoaren izen-abizenak.

c) Agerraldiaren tokia, eguna eta ordua.

d) Ohartarazpena, adierazteko ezen, agertzen ez bada, Zigor Kodearen 502.1 artikuluan jasota desobeditze-delitua egingen duela.

e) Agerraldian hizpide izanen dituen gaiak.

f) Espresuki aipatuko da Konstituzioak aitortzen dituen eskubideak errespetatuko direla; bereziki, pertsonen intimitate eta ohorerako eskubidea, sekretu profesionala eta kontzientzia klausula.

2. Agertzeko eskaria funtzionario publiko bati egiten zaionean, zitazioaren kopia hierarkian haren gainean dagoenari igorriko zaio, jakinaren gainean egon dadin, ez besterik.

3. Agerraldira deitutakoak laguntzeko izendatzen duen pertsonarekin egin ahalko du agerraldia.

4. Legebiltzarreko lehendakariaren iritziz agerraldia ez egiteko arrazoiak daudenean, aurrerago

egin ahalko da berriz zitazioa, 1. atalean aipatzen den moduan.

5. Agerraldira deitutakoak batzordean adierazpenak egin aurretik, batzordeburuak hura ohartaraziko du Zigor Kodearen 502.3 artikulua Parlamentuko batzorde baterako deialdia jaso eta lekukotza faltsua ematen duenarentzat ezarritakoz.

6. Agerraldira deitzearen ondorioz deitutakoari sortutako gastuak ordaindu eginen zaizkio, behar bezala justifikatu ondoren, Nafarroako Parlamentuko aurrekontuaren kargura.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

